

# Zubereraren azentuaz

Iñaki Gaminde  
EHUko irakaslea

Lan honetan zubereraren eremuan bederatzi herritan jasotako azentuari buruzko datuen laburpena eta analisirako proposamena aurkezten dira. Lana lau zatitan banatuta aurkezten da. Lehen zatian, jasotako izen eta adjetiboen azterketa akustikoaren emaitzen laburpena aurkezten da; ikuspuntu honetatik, azentuaren pertzepzioan izari nagusia zein den deliberatzea du helburu zati honek. Bigarren zatian, izen eta adjetiboen azentua txertatzeko proposatzen diren erregelak aztertzen dira. Hirugarrenean, deklinabidearen azentuari ekiten zaio; batetik, herri bakoitzeko erregelak ikertzekotan, eta bestetik, herrien arteko azaleko desberdintasunak azaltzekotan. Azkenik, laugarren zatian, aditz jokatuen azentu-eredu nagusiak ematen ditugu.

In this writing, the summary of data about accent of Basque language in Zuberoa collected in the nine villages and proposals for analysis are presented. It is divided into four parts. In the first part, the summary of the results of names' and adjectives' acoustic exam is given; from this point of view, the objectif of the first part is to determine which is the dimension of the accent's perception. In the second part, the aim is to analyse the rules proposed to inject the accent of names and adjectives. The third part talks about the accent of the declination; on the one hand, it investigates the rules in each village, and on the other hand, it gives us the superficial differences among the villages. In the fourth and last part, the main models of conjugated verbs' accent is discussed.

Lan horretan Zuberoako bederatzi herrian 1994.eko bazko astean egindako azentuari buruzko galdekizun batzuen bidez jasotako datuen emaitzak aurkeztu nahi dira<sup>1</sup>. Gure helburua, xumea izanagatik ere, galdekizun berbera herri guztieta egitea izan da; horrela aski datu homogeneoak bildu ahal izan ditugu hiru alorretan: izen bakun, deklinabide eta aditz jokatuen alorretan, hain zuzen. Badakigu, jakin ere, anitz dela egiteko dagoena; hala ere, dagoen datu-urritasuna kontutan harturik, hemen ematen ditugunok euskalki honetaz dakiguna nolabait aberats dezaketela uste dugu.

Zuberera Mitxelena-k (1972) eginiko sailkapenaren arabera, II taldean sartzen da Erronkarierarekin batera. Mitxelena-k berak azentu honen ezaugarriez mintzo zelarik honako hau erran zuen:

The position of the accent is regulated taking the last syllable of the word as the starting point. Oxitony is exceptional, and, in order to explain the present situation, it seems sufficient to postulate an older stage, common to both subdialects, in which isolated words were uniformly stressed on the penult, principally with the exception of some compounds and of a greater number of loanwords. It is, in any case, the final stress that clearly singles out a minority of finalstressed nominal and verbal forms from an overwhelming majority of other stress types. (112. or.)

Larrasquet-en lanak oinarritzat harturik iritzi bertsukoak agertu izan dira ondorengo autore gehienak zubereraren azentuaren ezaugarriak ematean: Lafon (1935), Txillardegi (1984) eta Hualde (1993); iritzi berekoa da bestalde Gavel (1920). Gure lantxo hau autore guztiak bermatzera heldu da, nahiz azterketa-rako harean liferentea den proposame-na eginen dugun. Izan ere, gure helburua bada baita jaso ditugun herri guztienn datuak azaltzea.

Datuak, gorago esan bezala, bederatzi herritakoak dira; Pagolan eta Arruan galdekizunak egin bagenituen ere, bazter uztea deliberatu dugu, herri hauetako euskara ondoko Behe Nafarreratik hurbilago dagoela uste izan baitugu. Galdekizunak egin ditugun gainerako herriak Altzai, Altzürükü, Barkoxe, Eskiula, Larrañe, Ligi, Mithikile, Muskildi eta Santa Grazi izan dira. Ohartu behar da ezen, hegoaldeko euskaldun eskolatu gabeen artean hain usu gertatzen ez den gisara, Zuberoako euskaldun gehienek erregistro bi darabiltzatela biziki ongi; gehienek euskaraz irakurri eta batzuek idatzi ere egiten dute, eta nolabaiteko eredu jasoaren jabe direla ezin uka daiteke, hortaz, gure datu zonbait eredu horretakoak izan bide daitezke eta ez eredu arruntarenak.

Herri hauetan izan ditugun lekuoak honako hauek izan dira:


Altzai: Battitte Bassaber.

Altzürükü: Dominique Etchart.

Barkoxe: Joseph Etchebarne eta R. Murkuilek.

1. Lan hau inola ere ezin burutuko zen nire hurrengo adiskideen laguntzarik gabe. Bihoazkie denei eskerrik beroenak: Jasone Salaberria-ri lekuoei galdera guztiak egin zizkielako, Mixel Larrasket-i galdekizuna frantsesera itzuli zuelako, Xarles Bidegain-i galdekizuna prestatzean egindako iradokizun estimagariengatik eta Esther Elgoibar-i herririk herri automobilez eraman ninduelako.

Eskiula: Jean Dulau eta Simone Talou.  
 Larrañe: Julien Barneix.  
 Ligi: Anna Bordachar.  
 Mithikile: Philippe Üthürralt.  
 Muskildi: Dominique Agergaray.  
 Santa Grazi: Maddalen Bürgübürü.



Lana lau zati nagusitan banatuta aurkezten dugu; lehen zatian izen eta

adjetiboen datu akustiko zonbait ematen ditugu<sup>2</sup>; bigarren zatian, izen eta adjetiboen azentua aztertzen da; hirugarrenean, deklinabideari dagokiona eta laugarrenean, azkenik, aditz jokatuen alorreko emaitzak aurkezten dira.

## 1. Datu akustikoak

Lehen atal honetan gizonezkoekin jaso ditugun datuen emaitza akustiko zonbait ematen ditugu. Silaba bat, bi eta hiruko oinak baizik ez ditugu neurtu zazpi herrietan. Bakoitzeko oinarrizko maiztasuna hertzetan, iraupena milisegundotan eta energia dezibeliotan ematen ditugu. Kasu guztietan batazbestekoak dira erabiliko ditugun kopuruak, eta datuak ematean azentudun silaba agertzen den egongunea kontutan hartzen dugu, hala nola azentuaren aurreko eta osteko silaben batazbestekoak ere. Datuak lehenbizian herriz herri aurkeztuko ditugu.

### ALTZAI

#### Oinarrizko maiztasuna:

	1. Silaba	2. Silaba	3. Silaba	4. Silaba	Orotara
Azentuduna	216,61	227,25	214,96	-	223,36
Azentu aur.	165,43	171,19	-	-	166,32
Azentu ost.	-	142,04	162,20	156,04	157,36

#### Iraupena:

	1. Silaba	2. Silaba	3. Silaba	4. Silaba	Orotara
Azentuduna	117,60	116,66	111,35	-	115,91
Azentu aur.	73,35	84,23	-	-	75,21
Azentu ost.	-	103,67	96,68	92,90	97,38

2. Datu akustiko guztiak Bilboko Injineru Eskolako irakaslea den Inmaculada Hernáez-ek garatutako AHOTSA ordenagailu-programaren bidez lortu dira.

Energia:	1. Silaba	2. Silaba	3. Silaba	4. Silaba	Orotara
Azentuduna	-8,77	-12,68	-13,72	-	-12,06
Azentu aur.	-14,30	-12,78	-	-	-14,07
Azentu ost.	-	-10,86	-10,71	-11,14	-10,80

#### ALTZÜRÜKÜ

Oinarrizko maitzasuna:	1. Silaba	2. Silaba	3. Silaba	4. Silaba	Orotara
Azentuduna	186,65	197,15	204,88	-	196,43
Azentu aur.	115,46	135,01	-	-	118,80
Azentu ost.	-	146,73	127,82	157,40	136,35

Iraupena:	1. Silaba	2. Silaba	3. Silaba	4. Silaba	Orotara
Azentuduna	115,09	129,07	121,21	-	125,09
Azentu aur.	84,17	80,08	-	-	83,47
Azentu ost.	-	84,74	88,28	86,69	87,34

Energia:	1. Silaba	2. Silaba	3. Silaba	4. Silaba	Orotara
Azentuduna	-4,44	-9,79	-10,14	-	-8,82
Azentu aur.	-9,07	-7,22	-	-	-8,75
Azentu ost.	-	-10,46	-6,86	-5,5	-7,31

#### BARKOXE

Oinarrizko maitzasuna:	1. Silaba	2. Silaba	3. Silaba	4. Silaba	Orotara
Azentuduna	168,07	174,93	171,48	-	173,04
Azentu aur.	115,98	125,68	-	-	117,64
Azentu ost.	-	124,75	125,37	116,47	123,76

Iraupena:	1. Silaba	2. Silaba	3. Silaba	4. Silaba	Orotara
Azentuduna	106,51	109,46	101,37	-	107,54
Azentu aur.	87,56	70,36	-	-	84,62
Azentu ost.	-	79,28	65,44	54,42	66,23

Energia:	1. Silaba	2. Silaba	3. Silaba	4. Silaba	Orotara
Azentuduna	-5,84	-9,50	-14,39	-	-9,61
Azentu aur.	-11,22	-11,94	-	-	-11,34
Azentu ost.	-	-14,62	-12,88	-11,20	-12,93

ESKIULA

Oinarrizko maiztasuna:

	1. Silaba	2. Silaba	3. Silaba	4. Silaba	Orotara
Azentuduna	221,93	213,07	203,91	-	213,23
Azentu aur.	139,89	141,05	-	-	140,09
Azentu ost.	-	161,37	163,80	154,99	161,86

Iraupena:

	1. Silaba	2. Silaba	3. Silaba	4. Silaba	Orotara
Azentuduna	100,68	102,98	86,87	-	99,85
Azentu aur.	64,31	61,57	-	-	63,84
Azentu ost.	-	71,82	59,10	51,68	60,28

Energia:

	1. Silaba	2. Silaba	3. Silaba	4. Silaba	Orotara
Azentuduna	-2,85	9,40	-16,08	-	-9,26
Azentu aur.	-10,21	-14,62	-	-	-10,96
Azentu ost.	-	-4,84	-7,71	-15,68	-8,49

LARRAÑE

Oinarrizko maiztasuna:

	1. Silaba	2. Silaba	3. Silaba	4. Silaba	Orotara
Azentuduna	159,69	160,05	144,86	-	157,44
Azentu aur.	117,47	119,13	-	-	117,75
Azentu ost.	-	134,56	120,68	105,36	120,77

Iraupena:

	1. Silaba	2. Silaba	3. Silaba	4. Silaba	Orotara
Azentuduna	95,55	114,28	113,99	-	110,66
Azentu aur.	53,61	68,85	-	-	64,76
Azentu ost.	-	82,43	88,01	83,43	86,18

Energia:

	1. Silaba	2. Silaba	3. Silaba	4. Silaba	Orotara
Azentuduna	-15,19	-21,46	-24,31	-	-20,74
Azentu aur.	-22,69	-18,2	-	-	-21,92
Azentu ost.	-	-11,72	-14,39	-17,24	-14,35

MITHIKILE

Oinarrizko maiztasuna:

	1. Silaba	2. Silaba	3. Silaba	4. Silaba	Orotara
Azentuduna	225,87	234,87	225	-	231,64
Azentu aur.	162,08	163,58	-	-	162,33
Azentu ost.	-	160,08	146,63	153,41	150,08

Iraupena:

	1. Silaba	2. Silaba	3. Silaba	4. Silaba	Orotara
Azentuduna	114,65	137	139,01	-	131,82
Azentu aur.	81,13	81,31	-	-	81,16
Azentu ost.	-	93,79	97,30	72,39	92,44

Energia:

	1. Silaba	2. Silaba	3. Silaba	4. Silaba	Orotara
Azentuduna	-4,22	-7,90	-9,89	-	-7,61
Azentu aur.	-9,13	-6,83	-	-	-8,74
Azentu ost.	-	-5,50	-6,88	-9,92	-7,16

MUSKILDI

Oinarrizko maiztasuna:

	1. Silaba	2. Silaba	3. Silaba	4. Silaba	Orotara
Azentuduna	139,59	126,52	129,38	-	129,23
Azentu aur.	100,61	106,29	-	-	101,56
Azentu ost.	-	110,97	103,43	99,38	104,02

Iraupena:

	1. Silaba	2. Silaba	3. Silaba	4. Silaba	Orotara
Azentuduna	59,17	90,38	80,58	-	83,37
Azentu aur.	55,18	53,82	-	-	54,94
Azentu ost.	-	44,26	48,27	44,08	46,87

Energia:

	1. Silaba	2. Silaba	3. Silaba	4. Silaba	Orotara
Azentuduna	-9,14	-18,16	-20,65	-	-17,04
Azentu aur.	-17,57	-15,74	-	-	-17,26
Azentu ost.	-	-14,08	-17,10	-18,72	-16,86

Zubereraren azentuaren izari nagusia oinarrizko maiztasuna dela esan dezakegu; honek Larrasquet-en (1928: 40-41) hitzak baieztago baino ez ditu egiten:

1.- L'accent souletin est essentiellement musical; mais l'élément d'acuité n'est pas indépendant de celui d'intensité. Dans tous les mots ou formes morphologiques, il y a toujours un accent musical, parfois plusieurs; (...)

2.- L'accent souletin musical est fixe, c'est-à-dire qu'il porte, dans une région donné, toujours sur la même syllabe: (...)


Bestalde, ikusi izan dugun eran, silaba azentuduna altuagoa ez ezik luzeagoa ere izaten da; honek ere Larrasquet-en (1928: 70) hitzak baieztago baino ez ditu egiten:

Dans un mot de plusieurs syllabes, la voyelle accentuée a toujours une durée plus longue que celles qui la précédent.

Oinarrizko maiztasunaren datuei bagagozkie, silaba biko unitateetan, herri guztieta, lehen silaba altuagoa da bigarrena baino; proportzioak ondoko era honetara agertzen


zaizkigu:

HERRIA	Hertz-proportzioak
Denak	%24,88
Altzai	%34,42
Mithikile	%29,12
Eskiula	%27,28
Barkoxe	%25,77
Altzürükü	%21,38
Larrañe	%15,73



Hiru silabako unitateetan altuena bigarrena dugu; ondoko taulan eta grafikoan herri guztietako proportzioen lifierentziak ikus daitezke:


HERRIA	Azentu aurrekoia	Azentu ostekoia
Denak	%30,11	%27,94
Altzürükü	%42,66	%35,16
Altzai	%26,08	%28,62
Barkoxe	%33,48	%28,33
Eskiula	%33,39	%23,12
Larrañe	%25,64	%24,59
Mithikile	%29,45	%37,56
Muskildi	%20,11	%18,25



Azkenik, lau silabako unitateei dagozkien proportzioak ikusiko ditugu ondoko taulan eta grafikoan:

HERRIA	1. silaba
Denak	%30,83
Altzürükü	%39,06
Altzai	%28,34
Barkoxe	%33,17
Eskiula	%35,21
Larrañe	%22,98
Mithikile	%33,45
Muskildi	%23,60

HERRIA	2. silaba	4. silaba
Denak	%24,98	%26,98
Altzürükü	%34,10	%23,17
Altzai	%20,36	%27,40
Barkoxe	%26,70	%32,07
Eskiula	%30,82	%23,99
Larrañe	%17,76	%27,26
Mithikile	%27,29	%31,81
Muskildi	%17,84	%23,18



## 2. Izen eta adjetiboen azentua

Izen eta adjetiboen azentu alorrean jaso ditugun datuak eman baino lehen, mugatzaileak afijatzean gertatzen diren erregela fonologikoak aztertuko ditugu. Singularrari dagokionez ondoko erregelok proposa ditzakegu:

- (1) a → ø / a \_\_\_\_\_ ##
- (2) e,o → i,u / \_\_\_\_\_ a
- (3) ü → i / \_\_\_\_\_ a

Erregelok aplikatuz gero ondoko deribazioak ditugu:

	aza+a	seme+a	ogi+a	asto+a	gathü+a
Afij.	aza	seme	ogia	astoa	gathüa
(1)	aza	-	-	-	-
(2)	-	semia	-	astua	-
(3)	-	-	-	-	gathia
Azk.	aza	semia	ogia	astua	gathia

Pluralari dagokionez, erregela berberak aplika ditzakegu:

- (1) a → ø / a \_\_\_\_\_ k##
- (2) e,o → i,u / \_\_\_\_\_ ak
- (3) ü → i / \_\_\_\_\_ ak

Deribazioak ondoko era honetara geratuko lirateke:

Afij.	aza+ak	seme+ak	ogi+ak	asto+ak	gathü+ak
(1)	azaak	semeak	ogiak	astoak	gathüak
(2)	-	semiak	-	astuak	-
(3)	-	-	-	-	gathiak
Azk.	azak	semiak	ogiak	astuak	gathiak

Eredu hau Santa Grazi, Larrañe, Alzai eta Atharratzen erabiltzen da; bestalde Barkoxeko lekuko baten eredu ere izan da, eta orohar, berau eredu jasotzat lekuko guztiekin daukatena da.

Gainerako herrietan beste erregela bat daukate:

- (4) a → ø / i,u \_\_\_\_\_ k

Erregela hau aplikatuta ondoko emaitzok lortzen ditugu:

azak semik ogik astuk gathik

Eredu hau Eskiula, Barkoxe, Mithikile, Muskildi eta Altzürükün jaso dugu. Ligin (4) erregela hau atzeko bokalarekin baizik ez da aplikatzen:

- (5) a → ø / u\_\_\_\_\_ k

azak semiak ogiak astuk gathiak

Azentuari buruzko datuak aurkezteko, Altzürükün jaso ditugunak hartuko ditugu singularrerako oinarritzat. Desberdintasunik egonez gero azpi-oharrez adieraziko dugu.

## Silaba batekoak (ó-o):

beltza <sup>3</sup>	haurra	huna	lürra
mea	gatza	txoya	gorra
bertza	zurra <sup>4</sup>	hurra	

eta, eredu nagusi bakoitzeko herri bat hautatzeari egokien iritzi diogu. Pettarako eredurako, Eskiulako datuak, eta Basaburuko eredurako, Larrañekoak, emango ditugu.

## Silaba bikoak:

(o-ó)		
aza	gazna	

(o-ó-o)			
ardia	aihaya	oihana	kosia <sup>9</sup>
hegatza	urdia	askaya	odola
lanthaya	etsia	erlia	bohorra <sup>10</sup>
semia	gathia	ollua	txakürra <sup>11</sup>
gizona <sup>5</sup>	küñata	ogia	sagarra
lekhía	zaldia	uhuña <sup>7</sup>	epherra
erbia	bazkaya	büia	ertzua
astua	arthua	zamaya <sup>8</sup>	günia
bidia	esnia <sup>6</sup>	ahüntza	
mithila	bihia	egürra	
apheza	gaztia	adarra	

## ESKIULA

## Silaba batekoak:

(ó-o)			
beltxak	gatzak	txoyak	
hurrak	gorrak	haurrak	
bertzak	hunak		
lürrak	meak		

## Silaba bikoak:

(o-ó)			
azak	ogik	eznik	urdik
erlik	zamaik	gaztik	bidik
bihik	etsik	erbik	ertzuk
gaznak	semik	olluk	arthuk
astuk	ardik	kosik	gathik

## Hiru silabakoak:

(o-o-ó)			
errota	montua <sup>12</sup>	kozina	
kharrika	arreba		
(o-o-ó-o)			
potikua <sup>13</sup>	sükaltia	arratua	
emaztia	abeatsa	medezia <sup>14</sup>	
alhargüna	godaleta		

Pluralen datuak emateko, gorago aipatutako desberdintasunak direla

(o-ó-o)			
ahüntzak	hegatzak	sagarrak	
adarrak	mithilak	gizunak	
txakürrak	egürrak	lanthayak	
epherrak	küñatak	aphezak	

## Hiru silabakoak:

(o-o-ó)			
errotak	mutikuk	arratuk	
sükaltik	emaztik	medezik	

3. *béltxa* Altzai, Eskiula.

4. Barkoxe.

5. *gizúna* Eskiula, Larrañe.

6. *eznía* Altzürükü, Altzai, Eskiula, Mithikile, Muskildi.

7. *ohúña* Mithikile.

8. Eskiula, Larrañe.

9. *kusía* Muskildi.

10. Mithikile.

11. *xakúrra* Mithikile.

12. Altzai, Muskildi.

13. *putikúa* Larrañe, *mutikúa* Mithikile.

14. *bedezía* Altzürükü, Altzai, Larrañe, Mithikile.

(o-o-ó-o)  
alhargünak      abeatsak

LARRAÑE

Silaba batekoak:

(ó-o)  
beltzak      gatzak      txoyak  
hurrak      gorraak      haurrak  
bertzak      hunak  
lürrak      meak

Silaba bikoak:

(o-ó)  
azak      gaznak

(o-ó-o)  
ardiak      urdiak      erliak  
txakürrak      astuak      esniak  
egürrak      lanthayak      gatiak  
ogiak      epherrak      mithilak  
gaztiak      kosiak      gizunak  
erbiak      arthuak      ahüntzak  
hegatzak      etsiak      olluak  
sagarrak      bidiak      bihiak  
adarrok      semiak      küñatak  
uhuñak      ertzuak      aphezak

Hiru silabakoak:

(o-o-ó)  
errotak      kozinak

(o-o-ó-o)  
putikuak      emaztiak      bedeziak  
sükältiak      abeatsak  
alhargünak      arratuak

Aurkezten ditugun datuen azentu-ereduak azaltzeko, eta deklinabidean eta aditzetan ikusiko ditugun ereduak lagun, azentua maila bitan ezartzen dela hartuko dut oinarritzat. Batetik hitzaren azentua dagoela proposatuko dut, eta bestetik, afijazioak eginez gero, berauen osteko azentu-ezarpena

egiten dela ere proposatuko dut; honi sintagma-azentua edo esan lekioke. Honenbestez, hitzaren azentua zein silabatan ezarri behar den litzateke lehen arazoa. Deklinabidean, beherago ikusten denez, herri batzuetan azentu nagusia azkenaurreko silaban ezartzen da, beste batzuetan, aldiz, lexemaren azken silabakoa izaten da azentu nagusia; hortaz, uste dut ezen, ditugun datuen arabera, ekonomikoagoa dela hitzaren azentua azken silaban paratu behar dela pentsatzea:

1 ← ]

Adibidez:

háur, hún, koziná, gizón, arratú, potikú, e.a.

Bestalde, Barkoxeko lekuak isolatuki, batere morfemarik gabe, eman zituen hitz batzuen azentuak honela agertzen zaizkigu:

ahúntz, sagár, egúr, ephér, zakúr, hegázt.

Behin sintagmari doazkion afijazioak eginez gero, sintagma-mailako azentua ezarriko litzateke azkenaurreko silaban:

2 ← ]

Absolutu kasuan azentu biak beti ere silaba berean ezarri beharko liratekeenez erredundantziatzat jo liteke erregela bi proposatzea. Haatik ondoko adibide biak kontutan izanik ez da aise azaltzen desberdintasuna:

gizónaëna      gizónaéna

Zonbait kasutan agertzen den oxitonía, a-z amaitutako hitzetan alegia, azken a-ren ezabaketa azentuaren ezarketaren ostekotzat joaz

azal dezakegu. Beraz erregelak ondoko era honetara eman ditzakegu:

- (1) Hitzaren azentua: 1 ← ]
- (2) Afijazioa
- (3) Sintagma-azentuaren ezarketa:  
2 ← ]
- (4) Bokalen aldaketak:
  - (4a) a → ø / a \_\_\_\_\_ ##
  - (4b) e,o → i,u / \_\_\_\_\_ a
  - (4c) ü → i / \_\_\_\_\_ a

	aza]a	seme]a	ogi]a	asto]a	gathü]a
(1)	azá]a	semé]a	ogi]a	astó]a	gathú]a
(2)	azáa	seméa	ogí]a	astóa	gathúa
(3)	azáa	seméa	ogí]a	astóa	gathúa
(4a)	azá	-	-	-	-
(4b)	-	semí]a	-	astú]a	-
(4c)	-	-	-	-	gathí]a
Azk.	azá	semí]a	ogí]a	astú]a	gathí]a

Pluraletan erregela berberak eman ditzakegu deribazioak ondoko era honetara eginik:

	aza]ak	seme]ak	ogi]ak	asto]ak	gathü]ak
(1)	azá]ak	semé]ak	ogi]ak	astó]ak	gathú]ak
(2)	azáak	seméak	ogí]ak	astóak	gathúak
(3)	azáak	seméak	ogí]ak	astóak	gathúak
(4a)	azák	-	-	-	-
(4b)	-	semí]ak	-	astúak	-
(4c)	-	-	-	-	gathí]ak
Azk.	azák	semí]ak	ogí]ak	astúak	gathí]ak

Gorago aipatu bezala, zonbait herri tan ondoko erregela hau gehiago dago:

- (4d) a → ø / i,u \_\_\_\_\_ k

Barkoxeko datuetan oinarrituta, badakigu jakin, mugagabean *bi áma* eta *bi alhába* erraten dela; honek, eta datu gehiagoren haiduru, proposatzen dugun analisirako nolabaiteko kontraesana darakuskigu, hots, proposatzen ditugun erregelen arabera ondoko hau geneukake:

	[bi] [ama]	[bi] [alhaba]
(1)	[bi] [amá]	[bi] [alhabá]
Afijazioa	bi amá	bi alhabá
(3)	bi ámá	bi alhábá

Hona helduta, azentu bi horietariko bat ezabatu egin behar da; arazo gailentzen den azentuaren aukera-ketan datza; dauzkagun Barkoxeko datuak azaltzeko badirudi hitzaren azentua ezabatzea proposatu behar dela. Nolanahi ere, arazo hau ezin azal dezakegu dauzkagun datuen arabera.

### 3. Deklinabidearen azentua

Deklinabidearen azentua azaltzeko, berau,urreko atalean onartu dugun bezala, maila bitan ezarri behar dela proposa dezakegu; batetik, hitzaren beraren azentua geneukake, eta bestetik deklinabide-atzikien afijazioaren ondorenean ezartzen dena,edo sintagma-azentua. Azentu hauek ondoko era honetara eman ditzakegu:

- (1) Hitzaren azentua: 1 ← ]

- (2) Sintagma azentua: 2 ← ]

Hitz batean azentu bat baino gehiago dagoenean beste erregela bi aplikatu behar dira. Batetik, azentu biak elkarren ondoan direlarik, azentu bat ezabatzeko erregela aplikatuko litzateke; arazoa honelako kasuetan honako hau litzateke, hots, jakitea lehena edo bigarrena den ezabatzen dena. Bestetik, azentu biak elkarren ondoan ez direlarik, euretariko bat bigarren mailara pasatzen da hemen ere, leku batzuetan hitzarena eta beste batzuetan sintagmarena bihurtzen da bigarrenkari. Azkenik, azentuari dagozkion erregelekin batera, ezin ahaz daitezke gainerako erregela fonologikoak, hala nola /r/ fonemaren ezabaketarena. Herrien arteko desberdintasunak badirudi erregela hauek aplikatzeko era desberdinatik heldu direla.

### 3.1. Bividunen deklinabidea

Atal horretan jaso ditugun datu guztiak eredugarri Alzai eta Alzürükö paradigmak emango ditugu.

ALTZAI:

Singularrak:

HAUR	GIZON
háurra	gizóna
háurrak	gizónak
haurrái	gizonái
haurrána	gizonána
haurráki	gizonáiki
hàurrantáko	gizónantáko

GAZTE	ABEATS
gaztía	abeátsa
gaztíak	abeátsak
gaztiái	abeatsái
gaztiána	abeatsána
gaztiákin	abeatsáikin
gaztiántáko	abeátsantáko

Pluralak:

HAUR	GIZON
háurrak	gizónak
haurrek	gizonék
haurrér	gizonér
haurrena	gizonéna
haurrekin	gizonékin
haurrentáko	gizonentáko

GAZTE	ABEATS
gaztíak	abeátsak
gazték	abeatsék
gaztér	abeatsér
gazténa	abeatséna
gaztékin	abeatsékin
gaztentáko	abeatsentáko

Datu hauek azaltzeko proposa ditzakegungo erregelak honako hauek dira singularrako:

- (1) Hitzaren azentua: 1 ← ]
- (2) Afijazioak.

(3) Afijazioen osteko azentua: 2 ← ]

(4) Azentuen egokitzapenak:

4a. Bi azentu elkarren ondoan direlarik, lehena ezabatu egiten da.

4b. Bi azentu direlarik, lehena bigarrenkari bihurtzen da.

Hona hemen *gizon* hitzaren deribazioak:

(1)	gizonjari	gizon]jan]a	gizon]aiki	gizon]jan]tako
(2)	gizónari	gizón	gizón	gizón
(3)	gizónári	gizónana	gizónaiki	gizónantako
r → ø	gizónái	gizónána	gizónáiki	gizónantáko
i → j	gizónáj	-	-	-
(4a)	gizonáj	gizonána	gizonáiki	-
(4b)	-	-	-	gizónantáko

ALTZÜKÜRÜ:

Singularrak:

HAUR	GIZON
háurra	gizóna
háurrak	gizónak
haurrei	gizónai
haurrena	gizónaena
haurreiaki	gizónaiki
haurrentáko	gizónaentáko

GAZTE	ABEATS
gaztía	abeátsa
gaztíak	abeátsak
gazték	abeatsék
gaztér	abeatsér
gazténa	abeatséna
gaztékin	abeatsékin
gaztentáko	abeatsentáko

Pluralak:

HAUR	GIZON
háurrak	gizónak
haurrek	gizonék
haurrér	gizonér
haurrena	gizonéna
haurreki	gizonéki
haurrentáko	gizonéntako

GAZTE	ABEATS
gaztik	abeátsak
gazték	abeatsék
gaztér	abeatsér

gazténa	abeatséna
gaztékilan	abeatséki
gazténtako	abeatséntako

Datu hauetako proposa ditzakegun erregelak honako hauetako dira sinngularrerako:

- (1) Hitzaren azentua: 1 ← ]
  - (2) Afijazioak.
  - (3) Afijazioen osteko azentua: 2 ← ]
  - (4) Azentuen egokitzapenak:

4a. Bi azentu elkarren ondoan direlarik, bigarrena ezabatu egiten da.  
4b. Bi azentu direlarik, bigarrena bigarrenkari bihurtzen da edo desager-tu egiten da.

Hona hemen *gizon* hitzaren deribazioak:

	gizon]ari	gizon]aren]a	gizon]aiki	gizon]aren]tako
(1)	gizón	gizón	gizón	gizón
(2)	gizónari	gizónarena	gizónaiki	gizónarentako
(3)	gizónári	gizónaréna	gizónáiki	gizónarentáko
r → ø	gizónái	gizónáéná	-	gizónaentáko
i → j	gizónaj	-	-	-
(4a)	gizónaj	-	gizónaiki	-
(4b)	-	gizónaena	-	gizónaentáko

Herrien arteko desberdintasunak (3) erregela suprasegmentalaren murrizketen eragina direla erran dezakegu. (1) eta (2) erregelak ontzat emanik, (3) erregelaren murrizketak honela arraformula ditzakegu:

(3a) Azentu-ezabaketa:

Bi azentu elkarren ondoan direlarik eurotariko bat ezabatzen da. Zonbait herritan hasieratik lehenbizikoan ezabatuz, bigarrenari eusten zaiolarik, [→ ; eta besteetan, aldiz, atzetik hasita lehena ezabatuz, eskuarki hitzaren azentuari eusten zaiola. ←].

(3b) Azenetu bigarrenkaria:

Hemen ere, lehen bezala, hitz batean bi azentu direlarik, elkarren ondoan egon ez eta, bat bigarrenkari

bihurtzen da, norabidea desberdina  
izanik, hots, [→ edo ←].


Erregela suprasegmentalak aurreko horiek izanik, segmentuei doazkien erregelak ere kontutan izan behar ditugu; hauek, batik bat, bokala aldaketa, semibokal formazioa eta dardarkari bakunaren ezabaketari doazkienak dituzkegu.

Aurreko erregelon arabera, kasuz  
kasu, herrien arteko hierarkia eraiki  
dezakegu; beronen eredu gisa *gizon*  
hitza emango dugu.


Ergatibo kasuan herri guztietan  
azentua azkenaurreko silaban ager-  
tzen da: *háurrak, gizónak, gaztí(a)k,*  
*abeátsak*

Datibo kasuan honako aukerak agertzen zaizkigu:

- |                   |             |
|-------------------|-------------|
| (1) Azentua 1 ← ] | *gizón]a]ri |
| Afijazioak        | *gizónari   |
| (2) Azentua 2 ← ] | *gizónári   |
| [ → Ø             | *gizónái    |



Genitibo kasuan honako aukerak agertzen zaizkigu *gizon* hitzarekin:



Soziatibo kasuan honako aukerak agertzen zaizkigu herri batzuetan kasuaren morfema azentu lexikalez markaturik agertzen delarik:

- (1) Hitzaren azentua      \*gizón]a]reki(n)  
Afijazioak                  \*gizónareki(n)

Destinatibo singularrean honako aukerok dauzkagu:



háurraentako gizónaentako gaztaentako * abeátsaentako	sükaltín	sükaltétan
háurrantako gizónaintako * gazteintako abeátsaintako	sükaltíla	sükaltetát
háurraentako * gizónaentako gaztaentako abeátsaentako	sükaltétik	sükaltetáik
háurrantako * gizónaintako gaztaintako abeátsantako	sükaltekúa	sükaltétakúa
háurrantako gizúnantako gaztiantako * abeátsantako	sükaltilaartíno	sükaltétaartíno
háurrantako gizúnaintako gaztaintako abeátsantako	LARRAÑE	
háurrantako gizúnaintako gaztaintako abeátsantako	herrían	herriétan
háurrantako gizúnaintako gaztaintako abeátsantako	herrilát	herrietát
háurrantako gizúnaintako gaztaintako abeátsantako	herrítik	herrietáik
háurrantako gizúnaintako gaztaintako abeátsantako	herrikúa	herrietakúa
háurrantako gizúnaintako gaztaintako abeátsantako	herrilaartíno	herrietaartíno
háurrantako gizúnaintako gaztaintako abeátsantako	sükaltían	sükaltétan
háurrantako gizúnaintako gaztaintako abeátsantako	sükaltílat	sükaltetát
háurrantako gizúnaintako gaztaintako abeátsantako	sükaltétik	sükaltetáik
háurrantako gizúnaintako gaztaintako abeátsantako	sükaltekúa	sükaltétakúa
háurrantako gizúnaintako gaztaintako abeátsantako	sükaltilaartíno	sükaltétaartíno

Pluralen deklinabidean -e azentu lexikoz markatuta agertzen dela proposa dezakegu, beraz deribazioetan gehienetan berau izaten da gailentzen den azentua; adibidez:

(1) Hitzaren azentua	gizonjék
Afijazioak	gizónék
Azentua ezabatu [ → ]	gizonék

Hemen ere, singularretan bezala, herrien arteko desberdintasunak ezabapenen norabideak eraginikoak dira.

### 3.2. Bizigabeen deklinabidea

Atal honetan jaso ditugun datu guztien eredutzat Eskiulan eta Larrañen osatu ditugun paradigmak emango ditugu.

ESKIULA	
kharrikán	kharrikétan
kharrikalát	kharrikétát
kharrikátik	kharrikétáik
kharrikakúa	kharrikétakúa
kharrikálartaartíno	kharrikétartaartíno

Bizigabeen deklinabidearen atal honetako datuak sakabanatuagoak badira ere, badirudi bizidunen deklinabiderako eman ditugun erregelea berberen bidez azal ditzakegula. Nolanahi dela ere, adlatibo kasua zonbait herrian markatua dela esan dezakegu. Herrien arteko desberdintasunak azentu-ezabaketa eta azentu bigarren-kariaren kokapenerako norabidean dautzake. Pluraletan -e azentu lexikaluz markatua dela ere esan dezakegu.

### 4. Aditz jokatuen azentua

Atal honetan aditz jokatuen alorrean jaso ditugun datuen eredugarri Altzürkü eta Larrañen jasotakoak ematen ditugu. Aditzok esaldiaren hasiera absolutuan jasoak izan dira, *egün*, *bethi(k)* eta *bihar* hitzen aurrean. Aspektu perfektua *-dut* eta *duzu* laguntzaileekin– aspektu ez-perfektua eta geroaldia ematen ditugu.

## ALTZÜRKÜ

ého dit	ého dùzü	eháiten dit	ehóko dit
žó dit	žó dùzü	žóiten dit	žóko dit
žán dit	žán dùzü	žáten dit	žánen dit
erre dit	errázi dùzü	errázten dit	erréko dit
édan dit	édan dùzü	edáten dit	edánen dit
gáldü dit	gáldü dùzü	gáltzen dit	gálduko dit
žósi dit	žósi dùzü	žósten dit	žósiko dit
sáldü dit	sáldü dùzü	sáltzen dit	sálduko dit
háutse dit	háutse dùzü	háusten dit	háutseko dit
eósi dit	eósi dùzü	eósten dit	eosíko dit
ikhúsi dit	ikhúsi dùzü	ikhústen dit	ikhusíko dit
ekhárri dit	ekhárrri dùzü	ekhárten dit	ekharríko dit
beótü dit	beoázi dùzü	beótzen dit	beotúko dit
galthátü dit	galthátü dùzü	galthátzen dit	galthatúko dit
xahátü dit	xahátü dùzü	xahátzen dit	xahatúko dit
zorróztü dit	zorróztü dùzü	zorrózten dit	zorroztúko dit

Ematen ditugun datuak azaltzeko, aditz-partizipioak silaba-kopuruen arabera sailkatuko ditugu. Silaba bateko partizipioetan azentu nagusia aditz-oinean ezartzen da eta ez da lekutzen; azentu bigarrenkaria aditz laguntzaileak hartzen du erdian, berau eta oinaren artean beste silaba bat badago. Silaba biko partizipioak badirudi arrasailkatu egin behar direla, batetik, oin monosilabikoa dutenak ditugu, eta, bestetik, oin bisilabikodunak; oin monosilabikoa denean azentu nagusia oinean paratzen da, eta bertatik ez da lekutzen, haatik, oin bisilabikoetan partizipioa ez-burutua denean azentua silaba bat aurreratzen da. Azkenik, hiru silabako partizipioetan azentu nagusia bigarren silaban paratzen bada ere, geroaldik partizipioan berau aurreratu egiten da.

Datu hauek azaltzeko honako erregelok proposa ditzakegu:

- (1) Afijazioak egin baino lehen oinak azentua hartzen du silaba bakarrean edo azkenaurreko silaban. Bestalde, aditz laguntzaileak, era berean, azentua hartzen du silaba bakarrean edo azkenaurrekoan.
- (2) Oinari partizipioen morfemak erantsi egiten zaizkio.
- (3) Ziklo honetan azentua azkenaurreko silaban paratzen da, oin monosilabikoenetan izan ezik.
- (4) Aditz partizipioa eta laguntzailea batu egiten dira.
- (5) Azentu bi elkarren ondoan badaude azkena ezabatu egiten da.
- (6) Aditz batean azentu bi badaude azkena bigarrenkari bihurtzen da.

	žan]ø]dit	edan]ø]dit	gal]dü]dit	ekhar]i]dit
(1)	žán]ø]dít	édan]ø]dít	gál]dü]dít	ékhar]i]dít
(2)	žán]dít	édan]dít	gáldü]dít	ékharríjdít
(3)	-	-	-	ekhárríjdít
(4)	žán dít	édan dít	gáldü dít	ekhárri dít
(5)	žán dit	-	-	-
(6)	-	édan dít	gáldü dít	ekhárri dít
Azkenik	žán dit	édan dít	gáldü dít	ekhárri dít

	žan]ø]düzü	edan]ø]düzü	gal]dü]düzü	ekhar]i]düzü
(1)	žán]ø]düzü	édan]ø]düzü	gál]dü]düzü	ékhar]i]düzü
(2)	žán]düzü	édan]düzü	gáldü]düzü	ékharríjdüzü
(3)	-	-	-	ekhárríjdüzü
(4)	žán düzü	édan düzü	gáldü düzü	ekhárri düzü
(5)	žán düzü	-	-	-
(6)	-	édan düzü	gáldü düzü	ekhárri düzü
Azkenik	žán düzü	édan düzü	gáldü düzü	ekhárri düzü

	žan]ten]dit	edan]ten]dit	gal]tzen]dit	ekhar]ten]dit
(1)	žán]ten]dít	édan]ten]dít	gál]tzen]dít	ékhar]ten]dít
(2)	žáten]dít	édaten]dít	gáltzen]dít	ékharten]dít
(3)	-	edáten dít	-	ekhárten]dít
(4)	žáten dít	edáten dít	gáltzen dít	ekhárten dít
(5)	-	-	-	-
(6)	žáten dít	edáten dít	gáltzen dít	ekhárten dít

	žan]jen]dit	edan]jen]dit	gal]düko]dit	ekhar]jiko]dit
(1)	žán]jen]dít	édan]jen]dít	gál]düko]dít	ékhar]jiko]dít
(2)	žánen]dít	édanen]dít	gáldüko]dít	ékharríko]dít
(3)	-	edánen dít	-	ekharríko]dít
(4)	žánen dít	edánen dít	gáldüko dít	ekharríko dít
(5)	-	-	-	-
(6)	žánen dít	edánen dít	gáldüko dít	ekharríko dít

#### LARRAÑE

ého dít	ého düzü	eháiten dít	ehóko dít
žó dít	žó düzü	žóiten dít	žóko dít
žán dít	žán düzü	žáten dít	žánen dít
erreázi dít	erreázi düzü	erreázten dít	erreáziko dít
édan dít	édan düzü	edáten dít	edánen dít
gáldü dít	gáldü düzü	gáltzen dít	gáldüko dít
žósi dít	žósi düzü	žósten dít	žósiko dít
sáldü dít	sáldu düzü	sáltzen dít	sáldüko dít
háutsi dít	háutse düzü	háusten dít	háutseko dít
eósi dít	eósi düzü	eósten dít	eósiko dít

ikhúsi dít	ikhúsi dùzu	ikhústen dít	ikhúsiko dít
ekhárri dít	ekhárri dùzu	ekhárten dít	ekhárriko dít
beoázi dít	beoázi dùzu	beótzen dít	beoáziko dít
galthégín dít	galthégín dùzu	galthegüten dít	galthegünen dít
xahátü dít	xahátü dùzu	xahátzen dít	xahátüko dít
zorróztü dít	zorróztü dùzu	zorrózten dít	zorróztüko dít

Herri honetako datuak azaltzeko aurrekorako eman ditugun erregelak zertxobait aldaturik proposatu behar ditugu, hau da:

- (1) Afijazioak egin baino lehen oinak azentua hartzen du silaba bakanrean edo azkenaurreko silaban. Bestalde, aditz laguntzaileak, era berean, azentua hartzen du silaba bakanrean edo azkenaurrekoan.
- (2) Oinari partizipio burutu eta ez burutuaren morfemak erantsi egiten zaizkio.

(3) Ziklo honetan azentua azkenaurreko silaban paratzen da, oin monosilabikoetan izan ezik.

- (4) Geroaldiaren partizipioa eransten da.
- (5) Aditz-partizipioa eta laguntzailea batu egiten dira.
- (6) Azentu bi elkarren ondoan badaude azkena ezabatu egiten da.
- (7) Aditz batean azentu bi badaude azkena bigarrenkari bihurtzen da.

	žan]ø]dit	edan]ø]dit	gal]dü]dit	ekhar]ji]dit
(1)	žán]ø]dít	édan]ø]dít	gál]dü]dít	ékhar]ji]dít
(2)	žán]dít	édan]dít	góldü]dít	ékhárri]dít
(3)	-	-	-	ekhárrij]dít
(4)	žán dít	édan dít	góldü dít	ekhárri dít
(5)	žán dit	-	-	-
(6)	-	édan dit	góldü dit	ekhárri dit
Azkenik	žán dit	édan dit	góldü dit	ekhárri dit
	žan]ø]düzü	edan]ø]düzü	gal]dü]düzü	ekhar]ji]düzü
(1)	žán]ø]düzü	édan]ø]düzü	gál]dü]düzü	ékhar]ji]düzü
(2)	žán]düzü	édan]düzü	góldü]düzü	ékhárri]düzü
(3)	-	-	-	ekhárrij]düzü
(4)	žán düzü	édan düzü	góldü düzü	ekhárri düzü
(5)	žán düüzü	-	-	-
(6)	-	édan düüzü	góldü düüzü	ekhárri düüzü
Azkenik	žán düüzü	édan düüzü	góldü düüzü	ekhárri düüzü
	žan]ten]dit	edan]ten]dit	gal]tzen]dit	ekhar]ten]dit
(1)	žán]ten]dít	édan]ten]dít	gál]tzen]dít	ékhar]ten]dít
(2)	záten]dít	édaten]dít	gáltzen]dít	ékharten]dít
(3)	-	edáten dít	-	ekhárten]dít

(4)	žáten dít	edáten dít	gáltzen dít	ekhárten dít
(5)	-	-	-	-
(6)	žáten dít	edáten dít	gáltzen dít	ekhárten dít
	žan]ø]en]dit	edan]ø]en]dit	gal]dü]ko]dit	ekhar]i]ko]dit
(1)	žán]ø]en]dít	édan]ø]en]dít	gál]dü]ko]dít	ékhar]i]ko]dít
(2)	žán]en]dít	édan]en]dít	gáldü]ko]dít	ékharrí]ko]dít
(3)	-	-	-	ekhárri]ko]dít
(4)	žánen] dít	edánen] dít	gáldüko] dít	ekhárriko] dít
(5)	žánen] dít	edánen] dít	gáldüko] dít	ekhárriko] dít
(6)	-	-	-	-
(6)	žánen dít	edánen dít	gáldüko dít	ekhárriko dít

Laburbilduz, Altzürükü, Altzai, Barkoxe, Eskiula eta Santa Grazin erregela berberak ditugu:

- (1) Afijazioak egin baino lehen oinak azentua hartzen du silaba bakoarrean edo azkenaurreko silaban. Bestalde, aditz laguntzaileak, era berean, azentua hartzen du silaba bakarrean edo azkenaurrekoan.
- (2) Oinari partizipioen morfemak erantsi egiten zaizkio.
- (3) Ziklo honetan azentua azkenaurreko silaban paratzen da, oin monosilabikoetan izan ezik.
- (4) Aditz-partizipioa eta laguntzailea batu egiten dira.
- (5) Azentu bi elkarren ondoan badaude azkena ezabatu egiten da.
- (6) Aditz batean azentu bi badaude azkena bigarrenkari bihurtzen da.

Gainerako herrietarako aldaketa txiki batzuk proposatu beharko genituzke; hala ere, gehien aldatzen den herria Ligi dugu. *jan*, *edan*, *galdü* eta *ekharri* aditzen jokabideak azterturik, ondoko aldakiak ditugu:

JAN

žán dít: Herri guzietan berdin.

žán düzü: Altzürükü, Altzai, Barkoxe, Eskiula, Larrañe, Mithikile eta Santa Grazi.

žan dízü: Ligi.

žán düzie: Muskildi.

žáten dít: Altzürükü, Altzai, Barkoxe, Eskiula, Larrañe, eta Santa Grazi.

žatén dít: Ligi.

žáten düt: Mithikile eta Muskildi.

žánen dít: Altzürükü, Altzai, Barkoxe, Eskiula, Larrañe.

žánen düt: Mithikile eta Muskildi.

žánen dít: Ligi.


žáneko dít: Eskiula.

žáneko dít: Santa Grazi.




## EDAN

*édan dit*: Altzürükü, Altzai, Barkoxe,  
 Eskiula, Larrañe, Ligi eta Santa  
 Grazi.  
*édan düt*: Mithikile eta Muskildi.  
*édan düzü*: Altzürükü, Altzai, Barkoxe,  
 Eskiula, Larrañe, eta Santa Grazi.  
*édan düzü*: Mithikile.  
*édan düzü*: Ligi.  
*édan düzie*: Muskildi.  
*edáten dit*: Altzürükü, Altzai, Barkoxe,  
 Eskiula, Larrañe, eta Santa Grazi.  
*edatén dit*: Ligi.  
*edáten düt*: Mithikile eta Muskildi.  
*edánen dit*: Altzürükü, Altzai, Barkoxe,  
 Eskiula, Larrañe.  
*edánen düt*: Mithikile eta Muskildi.  
*edanén dit*: Ligi.  
*edáneko dit*: Eskiula.  
*edanéko dit*: Santa Grazi.



## GALDÜ

*gáldü dit*: Altzürükü, Altzai, Barkoxe,  
 Eskiula, Larrañe, Ligi eta Santa  
 Grazi.  
*gáldü düt*: Mithikile eta Muskildi.  
*gáldü düzü*: Altzürükü, Altzai, Barkoxe,  
 Eskiula, Larrañe eta Santa Grazi.  
*gáldü düzü*: Mithikile.  
*gáldü düzie*: Muskildi.  
*gáldü düzü*: Ligi.  
*gáltzen dit*: Altzürükü, Altzai, Barkoxe,  
 Eskiula, Larrañe eta Santa Grazi.  
*gáltzen düt*: Mithikile eta Muskildi.  
*galtzén dit*: Ligi.  
*gáldüko dit*: Altzürükü, Altzai, Barkoxe,  
 Eskiula, Larrañe eta Santa Grazi.  
*gáldüko düt*: Mithikile.  
*gáldüken dit*: Eskiula.  
*galdüko düt*: Muskildi.  
*gáldükó dit*: Ligi.



ekhárri dit. Altzürükü, Altzai, Barkoxe,  
Eskiula, Larrañe, Ligi eta Santa  
Grazi.

*ekhárri düt. Mithikile eta Muskildi.*

*ekhárri düzü*: Altzürükü, Altzai, Barko-xe, Eskiula, Larrañe eta Santa Grazi.

*ekhárri düzü*: Mithikile.

*ekhárri düzie: Muskildi.*

### *ekhàrri düzü: Ligi.*

*ekhárten dit.* Altzürükü, Altzai, Barko-xe, Eskiula, Larrañe eta Santa Grazi

*ekhárten düt Mithikile eta Muskildi*

*ekhartén dit Ijgi*


*ekharriko dit.* Altzürükü, Altzai, Barko-xe Eskiula eta Santa Grazi

*ekharrien dit Eskiula*

*ekhárriko dít Larrañe*

**ekharríko düt Mithikile eta Muskildi**

*ekharrikó dit. Ljai.*



## Bibliografia

- Gavel, H., (1920): *Eléments de phonétique Basque*, Paris.

\_\_\_\_\_, (1929): *Grammaire Basque I*, Baiona.

\_\_\_\_\_, (1960): "Réponses souletines à un questionnaire linguistique", *Euskera V*, Bilbo.

Gèze, L. (1979): *Elements de grammaire basque*, Ordago, Donostia.

Hualde, J.I., (1993a): "On the historical origin of Basque accentuation", *Diachronica* 10,13-50.

\_\_\_\_\_, (1993b): "Topics in Souletin Phonology", *Generative Studies in Basque Linguistics*, ed. Hualde, J.I. & Ortiz de Urbina, J., John Benjamins, Amsterdam & Philadelphia.

Intxauspe, E., (1979): *Le Verbe Basque*, Ordago, Donostia.

\_\_\_\_\_, (1991): "Le Saint Evangile selon Saint Mathieu" in Bonaparte, L. L. (1991): *Opera Omnia Vasconice-II*, Euskaltzaindia.

Lafon, R., (1935): "Observations sur la place de l'accent dans quelques formes basques des parlers souletins", in *Mélange de littérature, d'histoire et de philologie offerts à Paul Laumonier*, Paris.

\_\_\_\_\_, (1958): "Contribution à l'étude phonologique du parler basque de Larrau (Haute-Soule)", *Estructuralismo e Historia: Miscelánea homenaje a André Martinet*, vol. 2, ed. Diego Catalán, 77-106, Univ. de La Laguna, La Laguna, Canarias.

Larrasquet, J., (1928): *Action de l'accent dans l'évolution des consonnes étudiée dans le basque souletin*, Vrin, Paris.

\_\_\_\_\_, (1931): "Beñát, Larrajáko belhagilii", *R/EV-22*, 229-240.

\_\_\_\_\_, (1934): *Le basque souletin nord-oriental*, Maisonneuve, Paris.

- , (1939): *Le basque de la Basse-Soule orientale*, Société de Linguistique de Paris, Paris.
- Mitxelena, K., (1972): “A Note on Old Labourdin Accentuation”, ASJU-6, 163-177.
- , (1985): *Fonética histórica Vasca*, Gipuzkoako Foru Diputazioaren argitalpenak, Donostia.
- Txillardegi, (1984): *Euskal Azentuaz*, Elkar, Donostia.